EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

**EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN ETA IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU ENPRESAREN ARTEKO LANKIDETZA-HITZARMENA, LINEA ELEKTRIKOAK EGOKITZEKO ETA HEGAZTI-FAUNA BABESTEKO**

**CONVENIO DE COLABORACIÓN ENTRE LA ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI E IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.U. PARA LA ADAPTACIÓN DE LINEAS ELÉCTRICAS PARA LA PROTECCIÓN DE LA AVIFAUNA**

Vitoria-Gasteizen, 2019ko ekainaren 13an

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de junio de 2019

**HONAKO HAUEK BILDU DIRA:**

**REUNIDOS**

Alde batetik, Ignacio María Arriola López jauna, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitzako sailburua, bere karguan jardunez, Lehendakariaren azaroaren 26ko 29/2016 Dekretuaren bidez egindako izendapenaren arabera, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN izenean eta hura ordezkatuz, 2018ko azaroaren 26an Gobernu Kontseiluaren Akordioaren bitartez emandako baimenaren arabera.

De una parte, Don Ignacio María Arriola López, Consejero de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, en el ejercicio de su cargo en virtud del nombramiento efectuado por Decreto 29/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, en nombre y representación de la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DEL PAÍS VASCO, de conformidad con la autorización otorgada mediante Acuerdo de Consejo de Gobierno de 26 de noviembre de 2018

Beste alde batetik, Antonio Espinosa de los Monteros Herrera jauna, 05359105-J IFZa duena, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU (helbidea: San Adrian Etorbidea, 48, Bilbo ) enpresaren izenean eta hura ordezkatuz, Kontseilari Ordezkari izanda, 2009ko abenduaren 22an onartu zen hitzarmen sozialari jarraituz.

De otra, D. Antonio Espinosa de los Monteros Herrera, con NIF 05359105-J, actuando en nombre y representación de la sociedad IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA S.A.U., con domicilio social en la Avenida San Adrián número 48, 48003 de Bilbao, en su condición de Consejero Delegado, según el acuerdo social que se adoptó con fecha 22 de diciembre de 2009.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

Bi alderdiek dagokien ordezkaritzaren arabera jardun dute, eta elkarri onartu diote Hitzarmen hau sinatzeko legezko gaitasun nahikoa eta, horretarako,

Actuando ambos en la respectiva representación que ostentan, se reconocen recíprocamente capacidad de obrar suficiente para firmar el presente Convenio, y a tal efecto,

**AZALTZEN DUTE:**

**EXPONEN**

**LEHENA**.- Lehendakariaren azaroaren 26ko 24/2016 Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioko sailak sortu, ezabatu eta aldatzeko eta horien egitekoak eta jardun-arloak finkatzekoak, 9. artikuluan ezartzen duenaren arabera, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak ingurumena babesteko eskumena dauka.

**PRIMERO**.- El Decreto 24/2016, de 26 de noviembre, del Lehendakari, de creación, supresión y modificación de los Departamentos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco y de determinación de funciones y áreas de actuación de los mismos, en su artículo 9 determina que el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda es competente para la protección del medio ambiente.

Hain zuzen, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saila, Ingurumen Sailburuordetzaren bitartez, natura ondarea babesteko arloetan aritzen da. Halaber, garapen jasangarria bermatzen eta sustatzen du, eta ingurumenaren inguruko informazioan, parte-hartzean, sentsibilizazioan, hezkuntzan eta prestakuntzan jarduten du.

Concretamente, el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda del Gobierno Vasco a través de la Viceconsejería de Medio Ambiente, actúa en las áreas de protección del patrimonio natural; garantía y fomento del desarrollo sostenible; e información, participación, sensibilización, educación y formación ambiental.

**BIGARRENA**.- 2014ko abenduaren 2ko Gobernu Kontseiluan onartutako EAEko 2020rako IV. Ingurumen Esparru Programan dago jasota Eusko Jaurlaritzak ingurumen-arloan hartutako konpromisoa, agiri horretan islatzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumen-politika. Hala, Eusko Jaurlaritzak gizartearen aurrean hartutako konpromisoen funtsa osatzen duten 15 plan estrategikoetako batean kokatzen da aipatutako

**SEGUNDO.**- El Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 2 de diciembre de 2014, aprobó el IV Programa Marco Ambiental del País Vasco 2020, documento en el que se plasma la política ambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco y se recoge el compromiso del Gobierno Vasco con el medio ambiente. Por este motivo este Programa se encuentra entre los 15 planes estratégicos que conforman el núcleo de los compromisos adquiridos por el Gobierno Vasco ante la

programa —konpromiso horiek Euskadi 2020: Giza Garapen Jasangarrian aurrera egiteko txostenean daude jasota—.

sociedad reflejados en el Programa "Euskadi 2020: Avanzar en el Desarrollo Humano Sostenible".

Programak gure lurraldeko ingurumenaren egoerari buruzko ikuspegia jasotzen du, eta, besteak beste, lehentasunezko jardun hauek ezartzen ditu:

El citado programa ofrece una visión de la situación del medio ambiente en nuestro territorio y establece el foco de las prioridades de actuación, entre las que se encuentran:

- Gure herritarren osasuna eta ongizatea sustatzea eta babestea.
- Lurraldearen jasangarritasuna areagotzea.
- Politiken koherentzia bermatzea, ingurumen-integrazioa areagotuta.
- Euskadiren nazioarteko proiekzioa eta erantzukizuna sustatzea.

- Promover y proteger la salud y el bienestar de nuestra ciudadanía.
- Incrementar la sostenibilidad del territorio.
- Garantizar la coherencia de las políticas intensificando la integración medioambiental.
- Contribuir a la proyección y a la responsabilidad internacional de Euskadi.

Hori guztia bideratzeko, sail eta erakundeen arteko koordinazioa eta lankidetza sustatuko da, ingurumen-aldagaia politika guztietan integratze aldera, eta agente sozioekonomiko guztiei zabalduko zaie ingurumena hobetzeko erantzukizuna.

Todo ello potenciando la coordinación y cooperación interdepartamental e institucional para integrar la variable ambiental en las distintas políticas y corresponsabilizando a los diferentes agentes socio-económicos en la mejora del medio ambiente.

**HIRUGARRENA.-** IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA SAU (aurrerantzean, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN) energia elektrikoa banatzen duen enpresa da, eta Euskal Autonomia Erkidegoan presentzia handia dauka, hainbat jarduketa, aktibo eta instalazioren bidez, tartean, linea elektrikoak.

**TERCERO.-** Que IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA, S.A.U. (en adelante IBERDROLA DISTRIBUCIÓN) es una empresa de distribución de energía eléctrica con una importante presencia en la Comunidad Autónoma del País Vasco, donde desarrolla su actividad a través de múltiples activos e instalaciones, entre los cuales se encuentran las líneas eléctricas.

**LAUGARRENA.-** IBERDROLA DISTRIBUCIÓN

**CUARTO.-** Que IBERDROLA DISTRIBUCIÓN, en línea

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

enpresak, Iberdrola Taldearen gizarte-erantzukizun korporatiboko politika eta ildoei jarraikiz, balio-ekarpen jasangarria egiteko konpromisoa hartu du, jarduten duen sozietate, herritar, bezero, akziodun eta komunitateen onuran. Modu horretan, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak, ekosistemaren kontserbazioa jasangarritasun globala lortzeko oinarrizko baldintza dela jakinda, eta bere jarduerak gauzatzeko hainbat ekosistematan eragina izan behar duenez, biodibertsitatearen kontserbazioa sartu du enpresa-estrategian, eta natura-ingurunea babesteko eta kontserbatzeko konpromisoa hartu du (hegazti-faunan arreta handiagoa jarriz). Hori lortzeko, berariazko neurri prebentibo eta konpentsatzaileak hartuko ditu, jarduten duen lekuetan prebentzioa edo berroneratzea sustatzeko.

con las políticas y directrices del Grupo Iberdrola en materia de responsabilidad social corporativa, tiene asumido el compromiso de contribuir a la creación de valor de forma sostenible para la sociedad, ciudadanos, clientes, accionistas y comunidades en las que desarrolla sus actividades. Así, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN, plenamente consciente de que la conservación del ecosistema constituye una condición esencial para la sostenibilidad global y del hecho de que el desarrollo de su actividad implica interacciones con diversos ecosistemas, ha integrado la conservación de la biodiversidad en su estrategia empresarial y tiene asumido el compromiso de protección y conservación del medio natural (con especial atención a la avifauna) mediante la adopción de acciones específicas preventivas y compensatorias encaminadas a la prevención o restauración de las zonas en las que opera.

**BOSGARRENA.-** EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK eta IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak historikoki elkarrekin lan egin dute, helburu komunak lortzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko ingurumenean ondorio onuragarriak sustatzeko.

**QUINTO.-** Que la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI e IBERDROLA DISTRIBUCIÓN han trabajado históricamente dentro de un marco de colaboración para facilitar el logro de objetivos comunes y potenciar resultados favorables para el entorno medioambiental de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

**SEIGARRENA.-** Abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuak, goi-tentsioko linea elektrikoetan hegazti-fauna talken eta elektrokuzioen aurka babesteko neurriak ezartzen dituenak, dekretua bera indarrean egon baino lehenagoko linea elektrikoak egokitzeko sistematika ere ezartzen du eta, ondorioz, betebeharrak

**SEXTO.-** Que el Real Decreto 1432/2008, de 29 de agosto, por el que se establecen medidas para la protección de la avifauna contra la colisión y la electrocución en líneas eléctricas de alta tensión, establece también la sistemática para la adaptación de tendidos eléctricos existentes a la fecha de su entrada en

jartzen dizkie bai linearen titularrei bai autonomia-erkidegoei. Gainera, linea elektrikoen egokitzapen hori Ingurumen, Landagune eta Itsas Inguruetako Ministerioak ezarritako aurrekontuko diru-horniduraren mende dago, martxoaren 17ko 264/2017 Errege Dekretuari jarraikiz.

Arau horren esparruan, Ingurumen eta Lurralde Politikako sailburuaren 2016ko maiatzaren 6ko Agindua onartu zen. Agindu horren bidez, arriskupean dauden hegazti-espezieen ugalketa, elikadura, sakabanatze eta kontzentrazioko lehentasunezko eremuak mugatzen dira eta hegazti-faunaren babes-eremuak argitaratzen dira –non aplikatuko baitira ez elektrokutatzeko edo talka ez egiteko 1432/2008 Errege Dekretuan ezarritako neurriak–, baita baldintza hauek ezartzen ere:

a) Derrigorrezkoak izango dira goi-tentsioko aireko linea berrietan edo aipatutako 2016ko maiatzaren 6ko Aginduan sartzerakoan betearazpen-proiektu onarturik ez dutenetan, bai eta dagoeneko badauden goi-tentsioko linea elektrikoen hedapen eta aldaketetan ere.

b) Aipatutako agindua indarrean sartzerakoan bazeuden goi-tentsioko aireko linea elektrikoetarako, derrigorrezkoak izango dira elektrokuzioaren aurkako babes-

vigor, imponiendo obligaciones al respecto tanto a los titulares de la línea como a las Comunidades Autónomas. Esta adaptación de las líneas existentes viene además condicionada por la dotación presupuestaria que se establezca por parte del Ministerio de Medio Ambiente, y Medio Rural y Marino conforme a lo previsto en el Real Decreto 264/2017, de 17 de marzo.

En el marco de esa norma, se aprobó la Orden de 6 de mayo de 2016, de la Consejera de Medio Ambiente y Política Territorial, en cuya virtud se delimitaron las áreas prioritarias de reproducción, alimentación, dispersión y concentración de las especies de aves amenazadas y se publicaron las zonas de protección para la avifauna en el ámbito de la CAPV en las que serán de aplicación las medidas establecidas contra la colisión y la electrocución en el Real Decreto 1432/2008, con los siguientes condicionantes:

a) Serán obligatorias para aquellas líneas eléctricas aéreas de alta tensión de nueva construcción o que no cuenten con un proyecto de ejecución aprobado a la entrada en vigor de la citada Orden de 6 de mayo de 2016, así como para las ampliaciones o modificaciones de líneas eléctricas de alta tensión ya existentes.

b) Para aquellas líneas eléctricas aéreas de alta tensión ya existentes a la entrada en vigor de la citada Orden serán obligatorias aquellas medidas de protección contra la

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

neurriak; talken aurkako babes-neurriak, berriz, borondatezkoak izango dira.

electrocución, y voluntarias aquellas de protección contra la colisión.

2016ko maiatzaren 6ko Aginduaren bigarren xedapen gehigarrian adierazten da Natura Ingurunearen eta Ingurumen Plangintzaren Zuzendaritzak ezarriko duela, ebazpen bidez, dauden goi-tentsioko aireko linea elektrikoetatik zein ez datozen bat 1432/2008 Errege Dekretuaren eranskinak ezarritako arau teknikoekin. Horren ondorioz, horrela zehaztutako lineen titularrek urtebeteko epea izango dute, eskudun organoaren aurrean, horiek egokitzeko proiektua aurkezteko, ebazpena jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Hori aipatutako Errege Dekretuaren 5.2 artikuluan eskatutakoari erantzuteko eta hori betetzeko.

En la Disposición Adicional Segunda de dicha Orden de 6 de mayo de 2016 se señala que la Dirección de Medio Natural y Planificación Ambiental determinará, mediante resolución, las líneas eléctricas aéreas de alta tensión ya existentes que no se ajusten a las prescripciones técnicas de los artículos 6 y 7 y en el Anexo del Real Decreto 1432/2008. Como consecuencia ello, las personas titulares de las líneas así identificadas deberán presentar ante el órgano competente, en el plazo de un año a partir de la notificación de la resolución, el correspondiente proyecto para su adaptación. Este extremo obedece y da cumplimiento, a su vez, a lo exigido en el art. 5.2 del meritado Real Decreto.

Ildo horretatik, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailak, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpen horren bidez (EHAA, 2018ko uztailaren 17a), 1432/2008 Errege Dekretuan xedatutakora egokitu behar diren eremu babestuko goi-tentsioko aireko linea elektrikoen inbentarioa osatu du.

En este sentido el Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda ha establecido mediante la Resolución de 18 de junio de 2018, del Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático, publicada en el Boletín Oficial del País Vasco con fecha 17 de julio de 2018, el inventario de las líneas eléctricas aéreas de alta tensión existentes en las zonas de protección que han de adecuarse a lo dispuesto en el referido Real Decreto 1432/2008.

**ZAZPIGARRENA.-** Natur ingurunearen errespetuan eta babesean lankidetzan aritzeko ohiturari jarraikiz, bi aldeek indarrak batuko dituzte 1432/2008 Errege Dekretuan ezartzen diren hegazti-fauna babesteko helburuak betetzeko.

**SÉPTIMO.-** Que, dentro del marco habitual de colaboración de las partes en relación con el respeto y protección del medio natural, es intención de ambas partes firmantes coordinar sus esfuerzos para la consecución de los objetivos de protección de la avifauna

contenidos en el citado Real Decreto 1432/2008.

**ZORTZIGARRENA.-** Ezarritakoari jarraikiz, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK eta IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak aipatutako ingurumen-helburu berak dituzte eta, ondorioz, alderdi sinatzaileek honako hitzarmen hau formalizatzea erabaki dute:

**OCTAVO.-** Que en relación a lo expuesto, la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI e IBERDROLA DISTRIBUCIÓN comparten los objetivos medioambientales citados y, en consecuencia, las partes firmantes acuerdan formalizar el siguiente convenio con arreglo a las siguientes

## XEDAPENAK

## ESTIPULACIONES

**LEHENA.- Hitzarmenaren xedea**

Honako Hitzarmen honen xedea EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN eta IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresaren arteko lankidetza-hitzarmena ezartzea da, goi-tentsioko linea elektrikoen egokitzapen-jarduketak egiteko, hegazti-fauna babestea asmo, 1432/2008 Errege Dekretuari eta 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenari, Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariarenari, jarraikiz. Azken horrek 1432/2008 Errege Dekretuan xedatutakora egokitu behar diren eremu babestuko goi-tentsioko aireko linea elektrikoen inbentarioa onartzen du.

Horretarako, hegazti-fauna babestea xede, lankidetza-mekanismoak zertuko dira.

**PRIMERA.- Objeto de Convenio**

Es objeto del presente Convenio establecer el marco de colaboración entre la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI e IBERDROLA DISTRIBUCIÓN para la realización de actuaciones de adecuación de tendidos eléctricos de alta tensión para la protección de la avifauna, conforme a lo previsto en el Real Decreto 1432/2008 y la Resolución de 18 de junio de 2018, del Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático, que aprueba el inventario de las líneas eléctricas aéreas de alta tensión existentes en las zonas de protección que han de adecuarse a lo dispuesto en el referido Real Decreto 1432/2008.

Dicho objeto se concreta en el establecimiento de mecanismos de cooperación para alcanzar el fin común de protección de la avifauna.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

**BIGARRENA.- IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak hartu dituen konpromisoak**

IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak konpromisoa hartu du hitzarmen hau indarrean jarri eta hurrengo 3 urtetan, urtero gutxienez 250 euskarri egokitzeko alderdiek identifikatu dituzten lineatan. Egokitu behar diren euskarrien kopurua seigarren xedapenean proposatu den jarraipen-batzordeak gorantz aztertuko du, Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpena betetzeko.

Identifikatutako lineak eta euskarriak egokitzeko konponbide teknikorik egokiena IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak zehaztuko du arau teknikoen arabera; dena den, hitzarmen honen eta araudi aplikagarriaren aurreikuspenak errespetatuko dira.

Horrez gain, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak bere jabetzako goi-tentsioko lineen bost euskarriren egokitzapena egiteko konpromisoa hartu du, jarduketarik behar badute. Linearekin talka egiteagatik edo elektrokutatzeagatik kalteberatasun-egoeran edo galzorian dagoen hegaztiren bat hil den lekutik hurbilen dauden bost euskarriak egokituko ditu, hain zuzen.

**SEGUNDA.- Compromisos que adquiere IBERDROLA DISTRIBUCIÓN**

IBERDROLA DISTRIBUCIÓN, adquiere el compromiso de adaptar por año como mínimo 250 apoyos, durante los 3 años siguientes a la fecha de entrada en vigor de este convenio, en las líneas identificadas por las partes. El número de apoyos a adaptar será revisado al alza en el ámbito de la comisión de seguimiento que se propone en la estipulación sexta, todo ello con el objetivo del cumplimiento de la Resolución de 18 de junio de 2018, del Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda.

La concreción de la solución técnica más adecuada para la adaptación de líneas identificadas y de los apoyos sobre los que se haya de actuar se realizará por IBERDROLA DISTRIBUCIÓN conforme a prescripciones técnicas normalizadas, respetando en todo caso las previsiones de este convenio y la normativa aplicable.

Adicionalmente a lo anterior, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN asume el compromiso de realizar la adaptación de los cinco apoyos –siempre que requieran actuación-, de líneas de alta tensión, de su propiedad, más cercanos al punto en el que se detecte algún incidente de mortandad, por colisión o electrocución con la línea, de aves calificadas como vulnerables o en peligro de extinción.

Halaber, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak konpromisoa hartu du Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Saileko Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariaren 2018ko ekainaren 18ko Ebazpenean ezartzen dena betetzeko. Gainera, egokitzapen-proiektua proposatuko du ezarritako epean, eta egin beharreko jarduketen lehentasuna zehaztuko du, Ebazpenean zehazten diren eta hitzarmen honetatik ondorioztatzen diren irizpideei jarraikiz.

**HIRUGARRENA.- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK hartu dituen konpromisoak.**

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK beharrezkoak diren hitzarmenak hartu eta behar diren izapide eta jarduketak egingo ditu, indarreko araudiaren arabera, hitzarmen honen baliozkotasuna eta eraginkortasuna lortzeko.

EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAk Hitzarmen honetan aipatzen diren goi-tentsioko aireko linea elektrikoen egokitzapen-proiektuaren irizpideak ezartzen lagunduko du. Horretarako, 6. artikuluan eta abuztuaren 29ko 1432/2008 Errege Dekretuan ezartzen diren arau teknikoak jarraituko ditu, eta horniduran eragin gutxien dauzkaten konponbide tekniko bideragarriak hautatuko ditu.

Así mismo, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN se compromete a cumplir lo establecido en la Resolución de 18 de junio de 2018, del Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda, proponiendo en el plazo previsto un proyecto de adaptación y priorizando las actuaciones a llevar a cabo, según los criterios contenidos en la propia Resolución y los que se derivan del presente convenio.

**TERCERA.- Compromisos que adquiere la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.**

La ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI adoptará cuantos acuerdos y realizará cuantos trámites y actuaciones sean precisas, conforme a la normativa vigente, para la plena validez y eficacia de este convenio.

La ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI colaborará en el establecimiento de criterios para la elaboración de un proyecto de adaptación de las líneas eléctricas aéreas de alta tensión a que se refiere el presente Convenio, a las prescripciones técnicas establecidas en el artículo 6 y en el anexo del Real Decreto 1432/2008 de 29 de agosto, optando por aquellas soluciones técnicamente viables que aseguren la mínima afección posible a la continuidad del suministro.

IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak egin behar dituen lanak denboraz planifikatu eta aurreikusi ahal izateko, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAK IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresari ahalik eta lasterren jakinaraziko dio hitzarmena gauzatzeko egin beharreko jarduketen aurreikuspena.

Aurreikusitako jarduketak ez egiteko bidezko arrazoiak badaude, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN enpresak EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRARI jakinaraziko dizkio.

**LAUGARRENA.- Bi alderdiek hartu dituzten konpromisoak**

Alderdiek hitzarmena indarrean dagoen urte bakoitzean egingo diren jarduketak adostuko dituzte, egokitu beharreko euskarrien guztizko kopurua Hitzarmenaren indarraldian zehar homogeneoki banatzeko.

**BOSGARRENA.- Baimenak**

Hitzarmen honetan ezartzen diren jarduketak egiteko, beharrezkoak diren baimenak eta instalazioaren ustiapen-baimena izan behar dira (sektore-legerian ezarritakoaren arabera, 1955/2000 Errege Dekretua eta 282/2002 Dekretua, abenduaren 3koa, Eusko Jaurlaritzarena, zeinaren bidez honako instalazio hauek

Con la finalidad de que se puedan planificar y prever con tiempo suficiente los trabajos a realizar por parte de IBERDROLA DISTRIBUCIÓN, la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI procurará anticipar a IBERDROLA DISTRIBUCIÓN la previsión de las actuaciones a realizar para la ejecución del presente Convenio.

Caso de existir motivos justificados que desaconsejen la realización de las actuaciones anticipadas, IBERDROLA DISTRIBUCIÓN lo pondrá en conocimiento de la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI.

**CUARTA.- Compromisos que adquieren ambas partes**

Las partes acordarán las actuaciones a realizar en cada período anual de vigencia del convenio, procurando repartir el número total de apoyos a adaptar de forma homogénea a lo largo de la vigencia del presente Convenio.

**QUINTA.- Permisos y autorizaciones**

La ejecución de las actuaciones definidas en el presente Convenio queda sujeta a la consecución de cuantos permisos y autorizaciones sean necesarios y la autorización de explotación de la instalación (según lo establecido en la legislación sectorial, Real Decreto 1955/2000 y Decreto 282/2002, de 3 de diciembre, del

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

eraikitzeko, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenerako prozedurak arautzen diren: argindarra ekoitzi, garraiatu nahiz banatzeko instalazioak, bai eta kontsumitzaileak konektatzeko hartuneak, zuzeneko lineak eta instalazioak ere).

**SEIGARRENA.- Koordinazioa eta gainbegiratzea**

Hitzarmen hau jarraitzeko, lanak gainbegiratzeko jarraipen-batzorde bat eratuko da, honela antolatuta:

- EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO ADMINISTRAZIO OROKORRAREN aldetik, Hitzarmenaren jarraipena egiteko ardura izango du Natura Ondare eta Klima Aldaketako zuzendariak.
- Iberdrola Distribución enpresaren aldetik, koordinatzailea honako hau izango da: Ignacio Olarreaga Tellechea jauna.

Jarraipen-batzorde hau gutxienez urtean bitan bilduko da eta, horrez gain, edozein alderdik eskatzen duenean. Batzordearen bilkuretara kideek zehazten dituzten pertsonak ere joan ahal izango dira, alderdi bakoitzaren izenean.

**ZAZPIGARRENA.- Hitzarmenaren indarraldia**

Hitzarmenak hiru urteko indarraldia izango du

Gobierno Vasco, por el que se regulan los procedimientos de autorización administrativa para la construcción, modificación, explotación, transmisión y cierre de las instalaciones de producción, transporte y distribución de energía eléctrica, así como de las acometidas, líneas directas e instalaciones de conexión de consumidores).

**SEXTA.- Coordinación y supervisión**

Para el seguimiento del presente Convenio se creará una comisión de seguimiento de la ejecución de los trabajos constituida del siguiente modo:

- Por parte de la ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI el seguimiento del Convenio recaerá sobre la Directora o Director de Patrimonio Natural y Cambio Climático.
- Por parte de Iberdrola Distribución se nombrará coordinador a Don Ignacio Olarreaga Tellechea.

Esta comisión de seguimiento se reunirá con carácter ordinario un mínimo de 2 veces al año y, además, siempre que lo solicite alguna de las partes. Podrán asistir a las sesiones de la comisión, en representación de cada una de las partes, las personas que los miembros de la comisión determinen.

**SÉPTIMA.- Vigencia del Convenio**

La vigencia del presente Convenio se extiende por

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

sinatzen den unetik hasita.

un período de tres años desde el momento de su firma.

**ZORTZIGARRENA.- Hitzarmena indargabetzea**

Honakoak izango dira hitzarmena indargabetzeko arrazoiak:

a) Xedea betetzea.
b) Indarraldia igarotzea.
c) Hitzemandako edozein xedapen ez betetzea.
d) Epaileak deuseztatzeko erabakia hartzea.
e) Alderdien arteko adostasuna.

Nolanahi ere, alderdiek konpromisoa hartzen dute hitzarmenaren salaketa jakinarazten duten unean hasita dauden ekintzak bukatzeko. Gainera, hitzarmena suntsitzen bada, ez dira ordaindu beharko kalte-galerak.

**OCTAVA.- Resolución del Convenio**

El presente Convenio se resolverá por cualquiera de las siguientes causas:

a) Por cumplimiento de su objeto.
b) Por vencimiento del plazo de vigencia.
c) Por incumplimiento de cualquiera de las estipulaciones acordadas.
d) Por decisión judicial declaratoria de su nulidad.
e) Por acuerdo de las partes.

En cualquier caso, las partes se comprometen a finalizar el desarrollo de las acciones ya iniciadas en el momento de notificación de la denuncia. Asimismo, con la resolución del Convenio, no procederá indemnización de daños y perjuicios.

**BEDERATZIGARRENA.- Izaera eta jurisdikzioa**

Hitzarmen hau administrazio-hitzarmena da, eta administrazio-zuzenbidearen bidez interpretatu eta garatuko da.

Hitzarmen hau ulertzean eta ezartzean sortu daitezkeen eztabaidak, baita betetzean ere, Jarraipen Batzordean konponduko dira elkarren arteko adostasunez.

**NOVENA.- Naturaleza y Jurisdicción**

El presente convenio tiene naturaleza administrativa, rigiéndose en su interpretación y desarrollo por el derecho administrativo.

Las controversias que pudieran plantearse en la interpretación y aplicación de este Convenio, así como en su ejecución serán resueltas de mutuo acuerdo en el seno de la Comisión de Seguimiento.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

IBERDROLA
DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA

Hitzarmen honen interpretazioa, aldaketa, ondorioak eta azkentzea direla-eta sortzen diren auziak administrazioarekiko auzien jurisdikzioan ebatziko dira, Gasteizko epaitegi eta auzitegietan.

Las cuestiones litigiosas a que pueda dar lugar la interpretación, modificación, efectos o resolución del presente convenio serán de conocimiento de la jurisdicción contencioso-administrativa, en los juzgados y Tribunales de Vitoria-Gasteiz.

**HAMARGARRENA.- Aldaketak**

Hitzarmen honi edozein aldaketa egiteko, aurrena Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari eta *IBERDROLA DISTRIBUCIÓN* enpresari jakinarazi eta haiek oniritzia eman beharko diote eta, horrez gain, bi erakundeetako dagokien organoek onartu beharko dute.

**DECIMA.- Modificaciones**

Cualquier modificación del presente convenio deberá comunicarse y contar con el visto bueno previo del Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial y Vivienda y de *IBERDROLA DISTRIBUCIÓN* y ser aprobada por los órganos correspondientes de ambas instituciones.

Bat datozela frogatze aldera, bi alderdiek hitzarmen honen bi ale sinatu dituzte, ondore bakarrerako, goiburuan adierazitako tokian eta egunean.

En prueba de conformidad se suscribe por ambas partes por duplicado y a un solo efecto, en el lugar y fecha señalados en el encabezamiento.

**ADMINISTRACIÓN GENERAL DE LA COMUNIDAD AUTÓNOMA DE EUSKADI**

**Fdo. Don Ignacio María Arriola López**

**IBERDROLA DISTRIBUCIÓN ELÉCTRICA, S.A.U.**

**Fdo. Don Antonio Espinosa de los Monteros**